

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko abuztuaren 15a

## Azueloko mutilak

■ The Vans Wasper Tour'97 jaialdi ibiltaria Iruñeko zezenplazan izanen da heldu den asteazkenean, hilak 20. Kalifornian (EEBBak) sortutako musika ikuskari erraldoiak *skate* kultura, hau da, monopatinaren kultura du ardatz. Monopatina, halaber, zenbait gazte iruindarren bizitzaren ardatz nagusia da. Wasper Tourra aitziak hartuz, Nafarkaria haiengana hurbildu da, zenbat diren, zer egiten duten, zein arazo dituzten, non elkartzen diren eta beste hainbat kontu galdetzeko. Erantzun dutenez, 60 inguru dira, monopatinaren gainean ematen dute egun osoa, ez dute lau gurpildun oholtzan ibiltzeko toki egokirik, eta Donibane auzoko Azuelo Monasterioa plazan elkartzen dira. Hori dela kausa, *Azuelo boys* deitzen dituzte, Azueloko mutilak. ■



Skater trebe askoak badira Iruñean ere.

LUIS AZANZA

## Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Idazki luzea eta ederra. Esaldi biribilez eta adieraziz ongi bete. Lerroek badute zerbait behin irakurritakoan berriz ere irakurtzera behartzen zaituena: hausnarketarako pagotxa ezin hobeak, ñam-ñam. Konbentzitu akaso, ez zaitu beti konbentzitu, baina dela probokaziogintzan maisu izan delako, dela bere esaldien laztasunean bera bezalako mindariak oso gutxi izan direlako, oraindik orain hil den Burroughs-en geziek jo didate nire buruzola pixka bat leunduz, abuztu honetako tximista sailak bazterrak zigortu dituen antzera. «Nire etorreratik, orain dela 500.000 urte edo, aburu bat besterik ez dut izan neure buruan. Zuentzat gizateriaren historia den hori da niretzat ihes egiteko nire zereginaren historia. Ez dut maitasunik nahi. Ez dut barkamenik nahi. Hemendik atera nahi dut, hori da guz-

## Urrup edan edo klik

tia». Itzulpenaren itzulpena. Eta luze, bai, oso luze jardun du *beat*, *underground* eta *punk*-en aitapontekoak *hemendik ateratze nahi horretan*; izan ere, 83 urte zituela joan zaigu Missouri morroi izugarri hura! Gure gizonak hitzekin lan egiten zuen. Hala ere, ez zen hitzen gatibu: «Gizakumeak kontzientziaren gorengo mailara iritsi nahi badu, hitzak behar ditu desegin; hor dagoen hori ikusi eta hartaz ohartzeko». Euskal barrutian, esate baterako, aspaldi desegin dira hitzok, eta hor dagoen *zera* hori ez du inork gogoko: pitzaduraz jositako ageri zaigu etxea, eta xixtra bizian aritzen dira barrukoak, elkarri mokoka eta destainaka, zuloak estali nahian. Sabaitik eroritako azken txintxorren hautsak biziagotu du, dexente gainera, bizikideen ohiko arnasbide kutsatua: desozio orokorra. Puaf!

Dena ez da zabarkeria inguru honetan baina. Hala erran nion neure buruari joan den larunbatean, Anoetako kontzertu itzela ETBko pantaila bidez ikusi eta entzun nuenean. Gau zolia, Donostiako Orfeoak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak elkarrekin batera eskaini zigutena: soinu eta harmoniaz, musikari handi zein txikien partiturez ongi apaindua, ororendako atsegingarri. Eta hango oholta gainean, urduri, jendarean lehenbiziko aldiz agertu izan balitz bezala, Mikel Laboa, hitz desegile aparta, kantagintzaren azti paregabea...

Hunkigarria izan zen benetan, Orfeo omenduak, Orkestra Sinfonikoak eta Laboak berak *Baga*, *biga*, *higa* kantuari egindako bertsioa aditza, entzulerik motelenaren barrera ere jo egiten zuen hark! Orduan, urrup edan nuen sakon, eta klik egin zidan bihotzak. X



\* **GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Tafalla:** Heldu den astelehenean Los Insoportables taldeak joko du Gabalzeka tabernan, arratsaldeko zortzietan. Hilaren 19an, toki eta ordu berean, Kashdadek joko du, eta 20an Los Rosslisek.

**Zangoza:** Nafarroako Jaialdien barruan, gaur gauean Kanarietako Mestisay taldeak aktuatu du Carmen klaustroan, hamarretatik aurrera. Bihar Ala dos Namorados portugaldarrak etorriko dira; eta etzi, berriz, Euclydes Mattos brasildarra.

**Iruña:** Astelehenean hasiko da Nafarroako Jaialdietako hirugarren zikloa, musika berriena. Astelehenean Balanescu laukotea izango da Gaiarre antzokian, asteartean Javier Paxariño, asteazkenean Suso Saiz laukotea eta ostegunean, zikloa amaitzeko, Madreus Portugalgo taldea.

**Lodosa:** Asteartean, gaudeko hamarretatik aurrera, Flamiz taldearen folk musika adituko da Lodosako pasealekuan.

**ZINEMA**

**Barañain:** Gaur *Space Jam* pelikula botako dute, gaueko hamarretan, lakuaren inguruan.

**Mutiloagoiti:** Bihar, bederatzia eta erdietan, *Mis dobles, mi mujer y yo* filmea eskainiko dute Eguzki plazan. Eguraldi txarra egiten badu, Kultur Etxean izango da.

**Lizarra:** Astelehenean *Goldeneye* pelikula ikusteko aukera izango da Los Llanos pasealekuan, arratsaldeko zortzietan.

**Noain:** Asteartean *Independence Day* Kultur Etxeko frontoian, gaueko hamarretan hasita.

**Zangoza:** Asteazkenean, gaueko hamarretan, Kultur Etxeko lorategian, *Mars Attacks* pelikula ikusteko parada.

**ANTZERKIA**

**Eneritz:** TEN Pinpilinpauza taldea gaur gaueko bederatzietatik aurrera, *Por los caminos de nunca jamás*, herriko plazan.

**Berriain:** *Recuerdos de Constantinopla* antzezlanaren taularatuko du gaur, arratsaldeko zazpi eta erdietan Los Galindos taldeak. Larre plazan.

**Deikaztelu:** Igandean, gaueko hamarretan eta erdietan, *Los Libroticos* lana aurkeztuko du Trokolo taldeak.

**Donamaria:** Igandean, bostak eta erdietan, pailazo ikuskizuna Trokolo taldearen eskutik.

**DANTZAK**

**Irunberri:** Bihar, arratsaldeko zazpiak eta erdietan, Rocamador taldearen aktuazioa.

**Lesaka:** Bihar, zortziak eta erdietan, Tantarumairu dantza taldea herriko plazan.

**ERAKUSKETAK**

**Orreaga:** Irailaren bukaera arte zabalik egongo da Fernando Garcia Carrero margolariak Itzandegian jarri duen erakusketak. Itzandegi, XIII. mendekoa, 1993an zaharberritu zuten. Garcia Carrerok hamasei olio paratu ditu han.

*nafar kronika*

Pello Goñi

**Haurrak**

**H**erodes berrien garaia bizitzea tokatu zaigula dirudi nonbait. Joan zen igandean Puebla de Sancho Perez herriko albistearekin ernatu ginen. Haur jaioberria zakarrontzi batean hilik aurkitu zuten Badajozeko herri hartan, den-dena ubeldua eta zilborrestea zintzilik zeukala, ustez amak sortu bezain agudo abandonaturik. Ekialde eta Hegoaldeko merkatuetan neska-mutikoak saltzen dira zurien gurasotasun nahia asetzeko; peđerastia sareetan apaizak eta apaiz ez direnak umeekin oheratzen dira; Aljerian erlijioarengatik hiltzen dituzte; Liberian, diotenez, mendi batengatik; Brasilgo karrketan umeak izateagatik... Eta hemen, zer gertatzen da hemen? Hemen lehengo egunean iruindar baten arrenkura leitzen nuen tokiko prentsan eta hau ere umez nazkatu agertzen zen. Iruñeko jatetxeetan haurrak sartzen uzten dutelako kezkatzen zen Maite G. irakurle anonimoa ondoko argudio honi utsiz: «Umerik

gabeko emakumea naizen aldetik, horrelako lekuetan zenbait toki erreserbatua izatea gus-tatuko litzaidake, batez ere lasaitasuna bilatzen dugunontzat». Emakume kexati hura jatetxe batean bazkaltzen egondu zen berriki, eta aldameneko mahaiaren inguruan haur batzuk garrasika eta korrika ibili omen ziren bazkari guztian zehar. Hori zela eta, haurrak jatetxeetan sartzea galarazi behar dela uste du, Alemania ultrazibilizatu gertatzen den bezala. Jakina, Maite G.ri ez zaio burutik pasatu, ezta instant bakar batez ere, haur bihurri haien gurasoei sarrera debekatzeko. Ez, noski, errazena baita neska-mutikoei mugak paratzea, estorbo egin ez diezaguten; haurren erasoan aitzinean aisena baita helduen mundua babestea. Izan ere, lasaitasuna ezezik independentzia, askatasuna, erosteko ahalmena eta gizaki gisa geure burua garatzeko ezinbestekotzat jotzen dugun erosat-tasun zerranda luzea ere ebasten baitizkigute *karraskari madarikatu horiek*.



Gure artean asko dira haurrak inguruan nahi ez eta mugak jarri nahi dizkietenak.

ANDER GILLENIA

*asteko pertsonaiak*



**Leopoldo Panero**  
Poeta


■ Leopoldo Panero poeta (Madril, 1948) Iruñean izan zen atzo literaturaz eta erotasunaz hitz egiten, Nafarroako Jaialdien barruan. Panerok (Madril, 1948) Arrasateko Santa Ageda psikiatrikotik «ihes» egin du duela gutxi, eta egun Kanarietan bizi da Claudio Rizzo idazle italiarrarekin eta haren familiarekin. *Así se fundó Carnaby Street* liburua argitaratu zuenetik, hamar poema bilduma kaleratu ditu Panerok. Arazo psikiatrikoak ez dira oztopo izan Panerorentzat; hark azken urteotako poema gordin eta lazgarrienetakoak idatzi ditu Santa Agedan.



**Jose Ulibarrena**  
Eskultorea

■ Jose Ulibarrena eskultorea irailaren 14ra arte erakusketa zabaldu du Iruñeko Gotorlekuko Arma Aretoan. Duela 72 urte Azkoieneren jaiotako artistak Artetako Etnografi Museotik hartutako obrak bere lana eta teoriak azaltzen dituzten lanekin jarri ditu Gotorlekuan. Ulibarrenak euskaldunen izaerari buruz duen iritzia laburbildu nahi izan du erakusketan. Harrizko, burdinazko eta zurezko antzinako piezak Axularren *Gerorekin* eta Nafarroako Erresumako historia kontatzen duten liburuekin tartekatu ditu, euskal memoria kolektiboaren adierazle gisa. Artistaren iduriko, erakusketak «euskaldunen sustraiak» gogoraraziko dizkio bisitariari.

*ahaztu gabe!*



**ARDI-ZAKUR TXAPELKETA**

**Amaiur:** Gaur, arratsaldeko bostetan, 22. Ardi-zakur Txapelketa eginen dute Amaiurren. Txapelketan hamar txakurrek hartuko dute parte, hauek dira haien izenak: *Bat* (artzaina Joxe Urien, Abadiñoakoa), *Kubino* (Felix Irigoien, Amaiurkoa), *Rubi* (hau ere Felix Irigoienena), *Zara* (Pello Oskariz, Lekarozkoa), *Labri* (Jorge Oteiza, Oronozkoa), *Txiki* (Jose Antonio Arribillaga, Eibarkoa), *Txika* (Axaritogarai, Iholdikoa), *Dik* (Jean Mixel Bidart, Bankakoa), *Koloma* (Jordi Muxac, Gironakoa) eta *Bat* (Xabier Urien, Abadiñoakoa). Txapelketaren ondotik, Baztango dantzarien saioa izanen da herriko plazan; gero dantzaldia Laiotz taldearekin; hamarretan mutildantzak, hamarketan sokamuturra, eta gauerdetik aurrera Laiotz taldea berriro.

*adi!*

**Euskalerrira Irratia astebete itxita egonen da tresneria berritzeko** Iruñeko Euskalerrira Irratian dena prestatzen ari dira denboraldi berriari ekiteko. Joan den urtearen bukaeran antena berria paratu bazuten, eta orain berrikuntza hadiak eginen dituzte, gottik behera aldatuko baita barruko tresneria, hots, nahas-mahai berria eta kable guztiak. Horrek aukera gehiago emanen dizkio Iruñeko euskarazko irrati bakarrari zerbitzua hobetzeko eta Iruñerriko euskaldunenganaino errazago ailegatzeko. Ez da nolana hiko aldaketa izanen. Horrexegatik, astebetean ez da saiorik aire-ratuko, irrati teknikarien esku egonen baita. Beraz, abuztuaren 18tik aurrera eta zortzi egunez isilik egonen da FMko 91.4a. Ahotsa ozenago eta bizkorrago bueltatuko da.



Otsagi

# Atharratze Jauregian antzeztuko dute bihar

Pier Pol Bertzaitzek idatzitako pastoralak Blankoa plazan izanen da ikusgai 17:30etan

**A**tharratzeko Jauregian —Pier Pol Bertzaitzek idatzitako pastoralak— antzeztuko da bihar, arratsaldeko 17:30etan, herriko Blankoa plazan. Zuberoko Atharratze herrian bi igandetan antzeztu ondotik, Otsagira hurbilduko dira Atharratze herriko jendiak ikuskizuna taularatzera.

Irene Arrizurieta / Iruñea

PASTORALA Nafarroan ikustea ohikoa ez den arren, ez da herrialdean antzezten den lehengo aldia. Aurreneko 1994ko Nafarroako Jaialdian taularatu zen Elizondon, orduan San Mixel Garikoitz pastoralak izan zen. Oraingoan lekukoa Atharratze Jauregian obrak hartu dio. Zaraitzuko herrian antzeztuko den pastoralak Xarles Lukuze, Atharratzeko baroia, eta Maria Ozaze Jaurgaineko bere emaztearen istorioa kontatzen duen kantatik sortua da. Ozaze Jauregian kantore zaharrea oinarritua, Pier Pol Bertzaitzek idatzia da. Konderria, Henri IV. erregearen garaian kokatzen da, erlijio gertakariak, eta Frantziako eta Espainiako Nafarroako Erresuma zatikatu zuten urteetan. Istorioak dioenez, Maria Ozaze gogoz kontra eskontzen dute bera baino askoz helduagoa den Xarles Lukuzearekin. Mariak beste maitale bat izan arren, pobreak dira eta behartua da Xarles esposatzera. Dena den, kontairak kon-



Zuberoan bi aldiz taularatu ondotik, Otsagira ekarriko dute pastoralak.

tatzen duenez, zoriontsu bizi izan ziren.

Istorioan bi pertsonaion gorabehera landa, orduko afera politikoak ere gogoratzen dira. Garai hartako gertakariak Zuberoa hondatu zuten eta zuberotarren baitan utzitako oroitzen franko taularatu ditu. Xarles Lukuze baroia, Nafarroa Beheko eta Zuberoako armaden buru izendatu zuten, Albretoko Joanaren aurka borrokatzeko. Baina guda galdu zuten, Xarlesek eta Mariak Otsagira ihes egin zuten eta han zazpi urtez bizi izan ziren. Hori dela eta, antzezten da bihar herrian pastoralak.

**Nafarroako jotak alkatearen ahotan**

Gertakari guzti horien berri emateko, 80 lagun ariko dira taula gainean. 16:30 herriko karraketan desfilea egingen dute eta ordubetik beranduago pastoralak taularatu da Blankoa plazako eskenatokia. Ikuskizunak hiru ordu eta erdi iraunen du eta taula gainera hiru mundu ezberdin igoko dira. Batetik, urdinez jantziak kristauak ageriko dira eta, bestetik, gorri beztatuak turkoak. Erdian, bi mundu horien artean, elizako pertsonaiak eta aingeruak kokatuko dira. Usarioari jarraituz, Zuberoako dantzariak betiko dantza ikus-

garriak eskainiko dituzte. Hala ere, badu nobedaderik Atharratze Jauregian pastoralak, Atharratzeko eta inguruko herrietako lagunez gain, Otsagiko jendeak ere hartuko baitu parte. Otsagiko dantzariak eta gaiteroak bertako dantzak eta doinuak plazaratu dituzte. Herriko alkatea obraren pertsonailetako bat izanen da eta, gaztelan bada ere, zenbait jota kantatuko ditu obran.

Atharratzeko Jauregian pastoralak izan dezake segida datozen urteetan, Otsagiko elizako papeletan Xarlesen eta Mariaren inguruko datu berriak aurkitu baititu Rafael Iribarren otsagiarrak. x

Arantza

## Nafarroako IV. Trikitilari Txapelketa hasiko da gaur

■ Hamahiru bikote ariko dira lehian 18:00etan, herriko plazan

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Trikitilarien IV. Txapelketa hasiko da gaur Arantzán. Lehen kanporaketan hamahiru bikote ariko dira lehian arratsaldeko 18:00etatik aitzina, herriko plazan. Bigarren kanporaketa, etzi, igandea, egingo da Goizuetan. Han sei bikote erakutsi beharko dute panderoa eta trikitiarekin duten abilezia, 20:00etan. Finala, berriz, Lakuntzan egingen da, abuztuaren 24an. Denetara puntuaziorik altuena ateratzen duten zortzi bikoteak izanen dira finalean; eguerdiko hamabietan.

Gaurko kanporaketako hamahiru partehartzaileek zein etziko zortziek ohizko piezak jo beharko dituzte: Bidekoa, trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina. Antzolatzaileen ustetan, gero eta errotuagoa dago txapelketa, eta partehartzea gero eta handiagoa da. Iazko finalistetatik lau bikote berririko dira txapelketan: Jone Elgorriaga eta Jose Mari anai-arrebak; Irune Zabala eta Patxi Zabala goizuetarrak; Maria eta Jon Irastorza bertarrak; Oiana Almandoz eta Nagore Ansalas lesakarrak. Dena den, txapelkunak bikote aldatu du, eta Jose Mari anaiak joko du panderoa.

Beste urteetako ohiturari jarraituz, Bortzirietako eta Malerrekako bikoteak dira nagusi trikitilari txapelketan. Hala ere, Martxel Ansa antolaketan lanetan aritzen denaren arabera, partaidetza gero eta zabalagoa da eta Leitzako, Aresoko eta Goizuetako bikoteek ere joko dute

**Sakanako bikoterik ez** • Partaidetza zabala den arren, Sakanako trikitilari ez da izanen aurtengo txapelketan. Soinua jotzen tradizio handiko bailara da Sakana, baina talde lanari begira moldaketak egiten ari dira eta maketa bat ere ateratzeko asmoa dute. Horrek txapelketak orain arte erakutsi duen maila jaitziko badu ere, sorpresa-rik ere suerta daitekeela uste dute antolatzaileek. «Maila jaitzi egiten du Sakanako txapelketan ez izateak, haiek beti erakutsi dutelako maila ona. Hala ere, horrek ez du esan nahi aurtengo txapelketa txarra izanen denik. Sorpresarik izan daiteke eta orain arte aurrean egon ez den beste bikoterik batek oso lan ona egin», azpimarratu du Ansak. x

Amaiur

## Ardi-zakur Lehiaketa gaur

■ 17:00etan hasiko da Gazteluko Maldan

Erredakzioa / Iruñea

AMAIURREN, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, festan dabilta egunotan. Baztango herri horretan heldu den astelehenera arte Andra Mari jaiak ospatzen ari dira. Bestetako egitarauaren barruan 22. Ardi-zakur Lehiaketa egingen da gaur arratsaldeko 17:00etatik aitzina; bestalde, ekitaldia bailaran jadanik oso errotua dago. Guztira zortzi artzainek hartuko dute parte, horien artean Joxe Urien bizkaitarra ariko da Bat ardi-zakurarekin; Urien azken bi urteotako lehiaketak irabazi ditu.

Ekitaldia arratsaldeko lau eta erdietan hasiko da. Herriko beheko puntatik hasita, txistularien doinuei jarraituz, segizioa egingen da. Aurrean herriko umeak sariak daramatzatela joanen dira Gazteluko Maldara, eta atzetik partehartzaileak.

Han hasiko da ordu erdi geroago lehiaketa. Lehiaketan ariko diren zortzi zakurak hiru proba egin beharko dituzte. Aurrenekoan, aurretiaz zehaztua eta seinalizatua dagoen bidetik ibili beharko du epailearen aginduetara. Bigarrenean, zakurrak 150 ardi osatutako artalde bi atakako itxiturako ateren batetik pasarazi beharko du. Lan zailena bukaeran egingen du. Ardi-zakurra artaldea itxituran sartzen saiatuko da, eta behin barruan duela ateratzen ahalegindu beharko du. Irabazleak txapela, kopa eta 20.000 pezeta jasoko ditu.

Lehiaketan ariko diren gehienak nafarrak badira ere, faborittoa Joxe Urien Abadiñoko artzaina eta haren zakur Bat dira. Bizkaitarrak 1995eko eta 1996ko txapela irabazi zuen, eta Oñatiko ardi-zakur txapelketako irabazlea ere izan zen duela bi urte. x

Erriberri

## Argazki Rallya egingen dute

■ Etzi izango da lehiaketa, Foto Berrik antolatuta

Erredakzioa / Iruñea

FOTO BERRI Erriberriko argazki elkarteak IV. Argazki Rallya egingen du etzi. Lehiaketan argazkigintzako afizionatuak zein profesionalak har dezakete parte, eta kamerarekin herriko txoko esanguratsuenak hartu beharko dituzte.

Azken lau urteotako ohiturari jarraituz, Erriberriko Foto Berrri elkarteak argazki lehiaketa bat antolatu du. Parte hartzen duten argazkilariek aurrez antolatzaileek eskatutako hiri-tokiei eta eraikuntzei argazkiak egin beharko dizkiete. Txapelketan parte hartu nahi duen afizionatu zein profesionalak izena egunean bertan edo aurretik eman dezake. Lehiaketa egunean egingen gero, udal-txe ondoan dagoen Carlos III.a plazan egin beharko du 10:30etatik aitzina, eta aurretiaz eman nahi badu 71 24 07

telefonora deitu behar du. Argazki rallya 11:00etan hasiko da, eta partehartzaileek herriko parajeak erretratatu beharko dituzte. Behin lehiaketa bukatu eta gero, hamaiketako eskainiko du elkarteak, eta ondotik sariak banatuko dira. Irabazleak hamar mila pezeta jasoko ditu, eta bigarrenak eta hirugarrenak bost mila.

Dena den, ez da hori egingen duten lehiaketa bakarra. Heldu den asteburuan, abuztuak 23 eta 24, herrira Erdi Aroko Merkaturia iritsiko dela aitzakiatzat hartuta, bazkideen arteko argazki lehiaketa antolatu du elkarteak. Gaia merkaturia bera izanen da, besteak beste, hango pertsonaiak eta eginkizunak erretratatu beharko dituzte argazkilariek. Egindako lanak beranduenez irailaren 11n bilduko ditu elkarteak, eta irabazleak 5.000 pezetako saria jasoko du egun bat geroago. x



Azueloko  
mutilak

# Iruñean monopatinentzako tokirik ez

'Skater' iruindarrek hamar urte daramatzate Udalarri monopatinean aritzeko pista egokia eskatzen

Juan Kruz Lakasta / Iruñea


TXIMA hori luzeak, praka handiak eta beti aldean daraman monopatina direla kausa, eta, batez ere, goitizenagatik — Whisky — Kalifornian jaio dela ematen du. Mutikoa ez da, alta, kaliforniarra. Aitzitik, iruindar peto-petoa da. Mikel Resano dira haren izen-abizenak, eta Donibane auzokoa da. Hamahiru urte zituela, San Fermin ikastolan ikasten ari zelarrik, haren klasean monopatinak modan jarri ziren, aurretik esku pilotarekin eta beste hainbat konturekin gertatu zen bezala. Kostata izan bazen ere, gurasoek monopatina oparitzea lortu zuen Mikelek. Zenbait hilabete pasatu eta gero, klasean diaboloa jarri zen modan: kasik gaztetxo guztiek diaboloa erosi eta monopatina armairuan utzi zuten, betiko ahantzirik. Ordea, Mikelek ez zuen sekula horrelakorik egin. Harrezkeroztik hamar urte igaro dira jada, eta Mikel ez da oraindik monopatinetik jaitsi. Egun 23 urte ditu, Psikologia ikasten ari da, eta egunero hiruzpalau ordu ematen ditu monopatinaren gainean.

Mikel Resano Whisky deitzen dute Azuelo Monasteriko plazan. Han egunero ilunabarrean, lau gurgpileko oholtza gustuko duten beste hainbat lagun skater-ekin elkartzen da, saltoka eta buelta-ka ibiltzeko, hitz egiteko, barre egiteko; ongi pasatzeko, azken finean. «Beste batzuk tabernan elkartzen diren bezala, gu hona, Azuelora etortzen gara lagunekin egotera», azaldu digu. Azueloko haren lagun araberak, Whisky monopatinarekin *makina* bat da, sekulako artista: duela gutxi bigarren sailkatu zen Gasteizen izandako txapelketan, eta, halaber, postu ona lortu zuen Donostiakoan. Whiskyk, lotsak musua zertxobait gorrituta eta irribarretsu, ezetz esan zuen: «Ez da horrenbesterako. Gainera, hemen, Iruñean, ez dago entrenatzeko toki aproposik».

**Pistarik ez** • Iruñean 60 gazte skater inguru daude, guztiak 19 urtetik 23ra bitartekoak. Whiskyk aipatutakoa da horien guztien arazorik latzena: Iruñean ez dago monopatinean ibiltzeko toki egokirik. Anai Garcia 60 skater horietako bat da. Whiskyren laguna da, 21 urte ditu, eta Andoainen Irudia eta Soinua ikasten ari da. Ilea motz eta gal-tza handiak daramatza. Azaldu digunez, skater iruindarrek pistei dagokienez aukera gutxi dauzkate: Sanduzelai auzokoa —txikie-gia—, Barañaingoa —Iruñetik urruti samar— eta Azuelokoa —ez dago monopatinean ibiltzeko eginda—.

Anairen azalpenen arabera, monopatinean ibiltzeko eskailerak, barandak eta antzeko ozto-

**H**aiek lau gurgpileko oholtzak maite dituzte; Iruñeko Udalak, berriz, ez. Hamar urte daramatzate monopatinean aritzeko pista egokia eskatzen, eta Udalak ez die kasurik egiten. Gauzak horrela, Iruñean monopatinean ibiltzeko dagoen toki egoki bakarrean elkartzen dira, Azuelo Monasterioko plazan hain zuzen ere. Pista egokiaren zain, ilunabarrero 60 lagun inguru elkartzen dira han, saltoak, jirak, bueltak eta barre egiteko; ongi pasatzeko, azken finean. 'Skater'-ak dira, 'Azuelo boys' iruindarrak.



«Monopatinaren mobida ez da jendeak uste duen bezain sinplea. Jendeak uste du monopatina gustatzen bazaizu musika jakin bat entzuten duzula eta arropa mota jakin bat janzten duzula, eta ez da horrela»

poak beharrezkoak dira, saltoak egin ahal izateko. «Hau ez da irristaketa, honetan garrantzitsuena ez da abiadura, eta Antoniuttiko bezalako pista batek ez du deustarako balio», azaldu du. Skater iruindarrak duela hamar urte hasi ziren pista egokia eskatzen. Anai adierazi duenez, orain arte ate guztiak itxi dizkiete, baina azken hilabeteotan itxaropenari zirikatu bat ireki diote. «Urte asko daramagu Udalarrekin harrema-

Azueloko mutilen ustez, The Vans Warped Tourrek akats asko ditu: komertziala da, gaizki antolatuta dago, sarrerak garestiak dira... Hala ere, guztiok zezenplazara joanen dira

netan, eta hamaika bidetatik barrena saiatu gara: federazioa sortzen saiatu ginen, gero irristaketa federazioaren barruan kluba osatzen saiatu ginen... Haatik, azkenean gauzak gaizki atera zaizkigu beti. Orain badirudi zerbait mugitzen ari dela. Zenbait arkitekto dauden aukerak aztertzen ari dira. Udalak txapelketa bat dela eta Antoniuttiko irristaketa pista hobetu nahi du, eta akaso hobekuntza horren barruan, irristaketa pistaren erdian dagoen berdegunean monopatinean ibiltzeko pista jartzea lortuko dugu. Corerarekin eta Hirigintzako zenbait teknikarekin hitz egin dugu. Dena dela, ikusi beharko dugu dirua sartzen duten ala ez, eta zer gertatzen den».

**Auzokideekin arazoak** • Pista egokiaren zain, skater-ek Azuelon segitzen dute, ilunabarrero hamaika zilipurdi egiten. Donibane auzoko Azuelo Monasterioko plaza porlanaren erresuma da. Belar gutxi dauka, eta zuhaitz bakar bat ere ez. Porlanez egindako anfiteatro erromatar baten antzeko zerbait dauka punta batean, eta gainontzekoa porlanezko dorretxo txikiz eta eskaileraz beteta dago. Porlana pintadaz gainezka dago: *I love this game* (Joko hau maite dut), *Azuelo boys* (Azueloko mutilak), *Azuelo: ven y cuéntalo* (Azuelo: zator eta konta ezazu), *Patina y destruye* (Patinatu eta birrindu), *Pistas ya* (Pistak orain)... Estekikoki plaza akaso ez da oso polita, baina salto ezberdin asko egiteko aukera eskaintzen du. Horrengatik, skater-ak kontent daude plazarekin. Auzokideak, berriz, ez daude horren pozik, plaza itsusia izateaz gain, skater-ak erakartzen dituelako.

Mikel Erizek 23 urte ditu, txima beltz luzeak dauka, eta praka motz arrunt samarrak daramatza. Whiskyren eta Anairen laguna da. Haien bezala hamar urte daramatza Azuelora kasik egunero joaten, eta urte horietan hamaika arazo izan ditu auzokideekin. Nolanahi ere, ohiko istiluei beste arazo handiago bat gehitu berri zaie. «Orain arte tarte-marteka auzokideren batekin liskarren bat izaten genuen, baina deus larririk ez. Orain gertatzen dena da plazako taberna batek terraza jarri duela, eta jabeak uste duela guk bezeroak uxatzen ditugula. Horrek arazo gehiago sortu ditu». Nolanahi ere, Mikelek ez du uste arazoa eurena denik: beste tokirik ez dago monopatinean ibiltzeko, eta pista bat jartzen ez duten bitartean, hor segituko dute.

**Harremanak** • Nolanahi ere, pistak eta auzokideak ez dira skater-en kezka bakarra. Horretaz landa, jendeak haiei buruz duen irudi faltsuak kezkatzen



Azueloko  
mutilak

Azuelo plaza porlanaren erresuma da. Hala ere, skater-ek gustuko dute, patinetean ibiltzeko Iruñeko toki apropos bakarra da eta.

LUIS AZANZA

## Warped Tour = marketina

ABUZTUAREN 20an, heldu den asteazkenean hain zuzen ere, The Vans Warped Tour '97 jaialdia izanen da Iruñeko zezenplazan. Ikuskariaren antolatzaileen arabera, Iruñea skate eta surf kulturaren hiriburu bilakatu da egun horretan. Punka, rocka eta hardcorea entzungai izanen da, eta honako talde hauek joko dute: Pennywise, Millencolin, Dance Hall Crashers, Down by Law, Delftones, Royal Crown Revue, CIV, Lin Ton Taun eta Komak. Azken biak bertakoak dira, eta gaitzako guztiak atzerriarrak, gehienak Kaliforniakoak. Musika gain, Espainiako skate txapelketa egingen dute, eta munduko zenbait txapelkunek erakustaldia egingen dute. Horien artean izanen dira Steve Caballero eta Sergie Ventura, sona handiko maisu kaliforniarrak. Halaber, eskalate erakustaldia izanen da, surf materiala salduko dute... Get in enpresa antolatzaileko Iñigo Argomarrizzen arabera, «bizimodu baten berri emanen duen ikuskari bikaina izanen da».

Iruñeko skaterren aburuz, alta, Warped Tourra

ez da horren bikaina izanen. Anai Garciairen irudikoz, akatsa jaialdiaren filosofian dago. «Orain monopatina hardcorearekin erlazioatzea modan jarri da, eta Warped Tourra horren ondorioa da, marketin hutsa, istorio komertziala. Skater batzuei hardcorea gustatzen zaie, baina beste batzuei ez». Mikel Resano Whisky bat dator Anaire-

kin. «Musikari dagokionez guztia gustatzen zaigu, heavytik hasi eta tabernetako musika patxangeroa heldu arte. Jaia nora, gu hara, horrelaxe ibiltzen gara gu». Nolanahi ere, Anairen ustez, komertzialtasuna monopatinaren munduan arazo orokorra da. «Guztia material banatzaileek antolatzen dute. Ez dago federaziorik, ez eta antze-

korik ere, eta txapelketak, jaialdiak, guztia banatzaileek antolatzen dute, skater profesionalak babesleei esker kobratzen dute, aldizkari onak markek ateratzen dituzte...».

Dena dela, Azueloko mutilen ustez, filosofia ez ezik, jaialdiak ba omen dauzka beste zenbait akats ere. Esate baterako, munduko zenbait txapel-

dunek monopatin erakustaldia egingen dute, baina hori ez omen da aski. «Horiek patinatzen ikustea ongi dago, baina hobeto legoke haien ondoan aritzea, eta seguru asko ez digute utziko. Hala ere, nola edo hala saiatuko gara», azaldu zuen Mikel Erizek. Bestalde, sarrera oso garestia izanen da: 4.000 pezeta (160 libera inguru). Hori, Whiskyren hitzetan, «gehiegitegi da». Whiskyk, dena dela, musutruk sartzeko itxaropena dauka. «Jaialdi Espainiako txapelketa egin behar dute, eta agian horretan parte hartzeko gonbitea egingen didate». Lehiaketa txapelkunak, Europako beste zenbait tokitan egingen dituzten txapelketak irabazleek bezala, Estatu Batuetara joateko aukera izanen du, eta han profesional bilakatze-ko aukera eduki lezake.

Laburbilduz, Azueloko mutilen ustez, The Vans Warped Tourrek akats asko dauzka: komertziala da, gaizki antolatuta dago, sarrerak garestiak dira... Baina, hala ere, guztiak han izanen dira. «Ez dakit nola, baina sartzuko gara», esan zuen Erizek. X



ditu. «Monopatinaren mugida ez da jendeak uste duen bezain simplea. Jendeak uste du monopatina gustatzen bazaizu, musika jakin bat entzuten duzula, eta arropa mota jakin bat jantzen duzula. Hemen mota askotako jendea elkartzen da, eta denetarik ikus dezakezu. Mugida ez da pentsa daitekeen bezain komertziala».

Nolanahi ere, skater-aren inguruan bada komertzio franko. Iruñean, esate baterako, badira, besteak beste, skate materiala saltzen duten hiruzpalau denda. Materiala nahiko garestia izaten da. Oholtzak lizarren zazpi zur geruza txiki itsatsiz eginda daude, eta gurpilak goma berezi batez. Horren ondorioz, monopatin on bat erosi ahal izateko gutxi gora-behera 25.000 pezeta ordaindu behar dituzu (mila libera inguru). Gutxienez, ez omen dago babesgarrinetan gastatu beharrik: «Ohiko saltoak egiteko ez dira behar», esan zuen Mikelek. Babesgarriak gehienbat patin arruntetan —oin bakoitzean bat eramaten diren horiek— doazena erabiltzen dituzte.

Skater-ek, portzieto, ez dituzte bere estetika kopiatu duten patinatzaile arruntak gehiegi maite. «Guk roller blader horiekin ez dugu inolako harremanik, eta ez dugu eduki nahi», esan zuen Whiskyk. Roller blader-ekin ez ezik, neskekin ere harreman arazoak dauzkate. Neska gutxi animatzen dira monopatinen ibiltzera, eta animatzen direnek ez dute Azuelon betidanik ibili diren gazte hauekin harremanik. «Gu ez ikusteko, gauze etortzen dira patinatzerara», esan zuen barre eta algaren artean Mikelek. Nolanahi ere, ez dute jende guztiarekin harreman txarra. Adibidez, Gasteizko, Donostiako eta Bilboko skater-ekin ongi moldatzen dira. «Txapelketetara joaten garelarik topo egiten dugu, eta ongi moldatzen gara, harreman ona dugu».

Bestalde, Azuelon jende berria hartzeko prest daude, eta kide berri horiei zenbait aholku eman zizkien Mikelek. «Hasieran egin behar dena monopatina ongi kontrolatzea da, derrapeak egingen ikastea eta ezer gutxi gehiago. Gero, oholtza ongi kontrolatzen duzunean, holly-a egingen ikasi behar duzu, hau da, monopatinarekin salto egingen. Hortik aurrera nahi duzuna egin dezakezu, holly guztiaren oinarria baita: salto eginda oholtzari buelta eman, edota eskalera baten gainetik salto egin edo beste hamaika kontu».



Xanti Begiristain

## Euskaldunak hotzak ote?

■ Askotan entzun eta irakurri dugu euskaldunok hotzak, isilak eta lotsatiak ote garen edozein giza harremanetan, eta askoz gehiago oraindik maitasun eta sexu harremanetan.

Jakina da balorazio hauetan guztietan beti egon daitekeela topikoa den zati bat, eta, bestaldetik, hori esaten bada, pentsatzekoa da egia puska bat ere izanen dela iritzi horietan.

Argi dago, halaber, aburu horietako asko sarritan esan eta eman direla, gaia ongi eta sakontasunez ezagutu gabe. Esate baterako, zenbat aldiz ez ote dugu entzun euskaldunok serioak, ez-komunikatiboak eta aldarte onik gabekoak direla?

Lehen esan dudana bezala, ez dut hemen adierazi nahi pentsamolde horiek ez dutela inolako arrazoirik, baina bai, ordea, ausartuko nintzateke baleztatzera, esaldi horiek gehiegitan bota direla aferaren nahiko ezaguerarik gabe. Esate baterako, kanpoko edota bertako erdaldun batek zer baliabide fidagarri ote ditu esateko euskaldunok halakoak edo bestelakoak garela, ez baldin baditu ulertzen euskal giroetan dabilen txisteak, adarjotzeak, ziri-sartzeak, ironiak eta abar?

Giroan erabat murgildu gabe zaila izaten da guztiz ongi ulertzea eta gero balorazio zuzenak eman ahal izatea. Oso ongi dakigu itxurek askotan iruzur egiten dutela eta horrelaxe sortzen direla betiko topiko tipikoak.

Maitasun, familia eta sexu harremanetara itzuliz, esanen nuke horietan ere izan daitezkeela zenbait topiko. Dena den, prest nago onartzeko beharbada gure Herriko biztanleak zeregin horietan beste herrialde batzuetakoak

baino lotsati eta hotzagoak ote diren. Dirudie-nez, orografiak ere bere zeresana du.

Hala eta guztiz ere, ezin da ahaztu gizarteak pertsonaz osatuak daudela, eta, beraz, aldakorrak eta mugikorrak izan daitezkeela, pertsonak bezala. Gainera, ni itxaropentsu naiz hori gerta dadin, hau da, gizakiok bilakaerak izan ditzagun onerako, hots, gure harremanak arlo eta alor guztietan handiagoak, zabalagoak, hobeak eta naturalagoak izan daitezzen.

Orain dela egun gutxi Leitizan izan nintzen Benito Lertxundiren kantaldia ikus-entzuten, eta horretaz landa adierazi beharra dut, atseginez harrিতuta gelditu nintzela ikustean gu baino aurreraxeago zen ama-seme bikote batek zeinen naturaltasunez adierazten zion elkarri bere maitasuna eta eta estimua jende guztia- ren artean, batere lotsatu eta ahalketu gabe.

Jakin ezazue ama ez zela inolaz ere gaztetxoa, ez eta semea haurtxoa ere; alderantziz, semea ongi kozkortua zegoen eta ama pertsona guztiz heldua zen. Hori bai, biak handi-handiak, batez ere semea.

Haiek euskaldun peto-petoak ziren hizkuntzaz eta izaeraz, baina, hala ere, han behintzat, ez zuten erakutsi inongo konplexurik, elkarrenganako maitasuna eta samurtasuna agertzeko jendearen tartean, patxadaz. Denbora gehienez aritu ziren besarkadak, laztanak, igurtziak eta abar elkarri ematen.

Kontzertua bukatu zenean ikusi nuen mutil hura oso nekez zebilela oinez, elbarritasun bat zela bide, ama eta arreba- ren laguntzarekin. Bejondeiela ama-seme haiei emandako adibideagatik, zeren eta nork ez baitu behar maitazarre handiagoa, e? ■

Klasiko bitxi, arrotz klasiko

Joxemiel Bidador

## Baroja Zornotza

■ Dasconaguerrek 1867.ean argitara eman zuen omen ozeneko elaberria aisaro saltzeko izenburupean ipini abata zuria erabiltzean ez zuen originaltasunez jokatu, eta alde aurretik bere erdal lanak errazkiago haizatzeko apeu petral hau hedatu zuenik izan bazen. Serafin Baroja Zornotza, Ricardo margolariaren eta Pio idazlearen aita hots, Barojatarren aikoburu nagusia zatekeena, erdal kulturari gagozkion bezanbatean bederen, Donostian sortu zen 1840.ean. Ezagun dateke Serafinengandik Barojatarrek letrerekiko izan duten arregura tematsua, baina ezin da ahantzi Serafinek berak ere etxean izan zuela inprimategia, erdal tradizioari itzuri ohi zatona, eta ez ordea edozein moldetxea, izan ere, gure Barojatarrei bereziki jario izan zaien lurrin ideologikoa guztiz bat etorri izan zen argitaletxe hartatik elkiriko hainbat lanekin, besteak beste. Iztuetaren hirua, edota erderara ere iraulirik estrainekez ageri Thiersen iraultza frantsesaren historiako liburua edo Monederoren giza gorputzari buruzkoa. Pascual Madozen abaroan Madrilen ikasi zuen Serafinek, baita zeraman ideologia zorrotzu ere, eta zuen liberaltasunari antiklerikalismo garratza gehitu zion bozik. Ingenieritza bukatutakoan, Huelva aldeko Riotintora joan zen 1868.ean, hango meatzetako arduradun. Geroztik, beti ere lanaren karietara, leku aunitzetan ibiliko zen, hala nola, Donostian, Madrilen, Iruñean, Valencian, Granadan, eta Bilbon, 1912.eko uztailaren 16an Beran zendu zen arte.

Gaztetandik ekin zion idazkuntzari. *Los pillos de la playa*, novela escrita en vascuence por Tantarfirulet, célebre tamborilero de Mizpirandieneya y vertida al castellano por Andre Grashi hiri-buru giputzean 1865.ean ageri zen. Donostia, Lezo eta Pasai eskenatoki zituzten idazki honen gertakizunen jatorrizko euskal aldaera idorotzeari ekitea zeharo ments litzateke, gorago esan bezala, salmentari begira botatoko amu antzu baita. *Noveluchas y cuentos, sucesidos y pasatiempos*, grabatu ederrez horniturik, orduan Plaza Berriko 7. zenbakian Barojatarrek zituzten moldeetatik elkiaz zuten 1865.ean, orduko aldizkigintzan argitaraturiko kolaborazioen bilduma. Edozein modutan ere, euskaraz ere zer edo zer utzi zigun, eta 1875.ean poesia liburu bat atera zuen euskaraz zein erderaz, *Gaci guezac* izenburuarekin. Ezkail berekoak izan ziren 1878. eta 1879. urtetarako ondu zituen euskaraz-erderazko almanakak, *Santo Tomasco feriya*, eta hiru ekitalditako *Pudente* opera zekarzkitutenak hurrenez hurren. Euskaraz ere tajaturikoen artean *Cecen-suzcoa*, *Asto-continac* edo 1882.eko *Hirmi arma alabac* bertsozko antzerki bi ekitaldidun litezke. Azken hau Iruñeko Gaztelu Plazako 17. atarian zegoen Fortunato eta Isturitzen etxean inprimatu zen, eta hiru errealetan bakarrik salgai jarri bazuten ere, ez zen aleki meats bat ere saldu.

Elaberrietatik poxi bat hastanduz, eta izkiriagintza pragmatikoago batean murgildurik, kazetaritzan ere higitu zitzaigun Donostiakoa. Madrileko *El tiempo* egunkarian azken karlistadaren gerrate kronikak largatu zitzaigun oparo eta zehatz. Txertoakoek ere 1986.ean argitara eman zituztenak Julio Caro Barojaren hitzaurre batekin. Haiexek 1876.eko urtarrilaren 10tik ber urteko otsailaren 26ra bitartean idatziak dira. Bertan aisa hatzeman daiteke gauza jakina zena, karlistei zien herra hirotua alegia. Otsailaren 22ko eskutitzan Donostian jasoriko bertso batzuk eman zituen, Alfonso XII.aren alde, geure ustez, berak sorturikoak erraz izan litezkeenak: «Amabigarren Alfonso dago / Donostiako errian / Erregue maite, guizon eguifia / Gaztetik estrangerian / Malco tartian aur bat zifiala / Utzi guinduzen toquian / Pozen indarrez negarrez ere / Gaude gaur zure aurrian».

Ildo honetatik segituz, 1879.eko apirilaren 21an *El Urumea: periódico no político* egunkaria agertu zuen Ricardo anaiarekin Donostian. Bertan aldikako *Entre Madrid y San Sebastián: amores prosaicos* elaberria agertu zuen besteak beste. *Perico Pello de Alabaindane: apuntes para la historia de un buen apunte, escritos por el mismo en vascuence y traducidos al castellano* Iruñeko *El Navarro* izeneko egunkari liberalean ageri zen elaberria dugu berriz.

*De Chamberí a Madrid, 100 metros en 25 días* elaberria 1895.eko *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian argitara eman zuen. Badirudi beraz, asmo literarioek kazetariarenak garaitzen zituztela edo. Halaz guztiz, 1883.eko urtarrilaren 1ean *Bai Jauna* bai: *periódico bilingüe castellano vascuence* astekaria, engeitak aipatu *El Navarro* egunkariarekin arras loturik zegoena, agertarazi zuen Iruñean. Geroxeago ere Madrilen arra-azalduko zen 1904.ean. Honetan ezizen abondo erabili zituen: Anisch, Equich, Equech, Malcosh... Argitalpen honen bizitza zeharo llaburra izan zen, exkaxegia, izan ere, eta azken zenbakian adierazi zuen moduan, harpidedun ezak bere astekaria ixilaraztera eroan baitzuen.

Literaturak ezetik baita musikak ere atsegiten zuen Serafin Baroja. Musikaz bazekien ederki, eta txelojole gisa, Santistebanekin aritu zen askotan. Bien arteko aitzinaratu ekarpenak ez ziren, halarik ere, hortara soilik mugatu. Gorago aipatu *Pudente* operaren musika Santistebanena dugu, eta Caro Barojak molokota hutsa izan zela zioen arren, orduko *Euskal Erria* aldizkariak arrakasta azantzatsutat aurkeztu zigun. Geroxeago *Luchi opera hitu actoa*n papereratuko zuen *Bai Jauna*, bai astekarian 1904.ean Madrilen. Hantxe ere 13 akto eta epilogo duen *Amairu damatxo* zarzuela agertaraziko zuen, eta erderaz bazen arren, kantatutakoa euskaraz genuen baiki. ■



Sarri askotan esan izan da euskaldunak hotzak garela harremanetarako.



# Baserriko bizimodua, arte bihurturik

Juan Gorritik bere lan bitxiak ikusgai ditu Lekunberriko Mitxausenea kultur etxean abuztuan zehar



**D**enatarik aurki daiteke Juan Gorritiren erakusketan. Kultur'97ko egitarauaren barruan, abuztu guztian zehar izango ditu Arribekoak bere lanak Lekunberriko Mitxausenea kultur etxean. Haren ustez, benetako artista herria da, eta artelanik ikusgarriena baserria. Horregatik omendu nahi izan ditu orain baserria eta bertan aurkitzen diren tresnak. Zerbait berria erakutsi nahi zuen, eta baita lortu ere: Gorritik barruan duen ume horren azken bihurrikeriak dira ikusgai Mitxausenean.

Urko Aristi / Iruñea

JUAN GORRITIK herriaren artelanak islatu baino ez omen ditu egiten, eta hori nabaritzen da: Araizko eta Mailopeko erreferentziarik ez da falta Oderitzen jaio baina Arriben bizi den artista honen lanetan. Gure arbasoek utzitako ondare artistiko apalaren goraiamenak dira haren erakusketa guztiak, eta, noski, abuztu guztian zehar Mitxausenean izango duena ere bai.

Baserrietako pareta zaharrak, erortzear daudenak, eskultura bihurtu ditu Gorritik. Paretak lehen hesiekin egiten ziren, eta gero galtzina eta anil-hautsaz margotzen ziren. Ia-ia urtero beste pintura kapa bat ematen zitzairen, horrenbeste kapekin azkenerako erliebe bitxi batzuk lortuz. «Niretzat, pareta horiek koadroak dira», dio Arribekoak, «eta horregatik egin ditut pareta antzeko hauek». Bi hanka gainean zutik dauden egurrezko sareak galtzina estali ditu, urdin argi-argiz margotu, eta haien gainean, petatxo horixka batzuk, okre kolorekoak jarri. Pareta horien goialdean, askotan, zulo bat izaten zen bonbila bakar baten argia bi gelatarako aprobeztatu ahal izateko. Horrela, argia eta, batez ere, dirua aurrezten zuten. Zulo horri eskultura bat ere eskaini dio, Baserriaren argia izenekoa, eta duela 200 urte inguruko egurrez eginikoa.

Gorritirentzat, artista bere eskuekin zerbait egiten duen edonor da, «baita patata tortilla goxo bat egiten duena ere». Artista anonimo eta xehe horiei guztiei eskaini die Juanek bere erakusketaren beste zati bat: sarraila zaharrak, ongariari buelta emateko erabiltzen ziren kakoak, sukalde txiki baten erre-presentazioa... denak langa banaren gainean, langak baitira Gorritik bere lanekin idatzi nahi duen historia liburuaren orriak. Hauek txiki-txikiak dira, baina ondoan bada beste eskultura handi bat: artzainei eskainitako malatxa bilduma bat. Malatxak aspaldian gazta egiteko erabiltzen ziren «batidora primitiboak» dira. Horrela, zenbait malatxa



Filosofiaz beteriko lana da Gorritirena. Ezkerrean ageri den bezalako lan bitxiak ikus daitezke erakusketan.

handi-handi egur baten gainean zutik jarri, eta kolorez bete ditu.

Erakusketa bakoitzean zerbait berria eskaini behar dela uste du Gorritik. Horregatik erakusketa

hau egiteko ideia planteatu zenean, kutxa batzuk egitea bururatu zitzaion. Eta baserriari bizitasuna ematen dioten haurren mundua ere islatu nahi zuenez,

kutxa horiek Araitz-Betelu eta Larraungo eskoletako umeei eraman zizkien berek nahi bezala margo zitzairen, txikitan Gorritik bere aitonaaren lanabesekin egi-

## Historia idazteko beste era bat

«NI IDAZTEN ez naiz oso trebea, baina lan hauek egitea, nire ustez, historia idazteko beste era bat da», dio Gorritik. «Hauetako lan bakoitza, historiaren orrialde bat da. Askotan gutxiesten dugunaren goraipea». Gorritik ez da eskultorea dela esatera ausartzen. Bera ez omen da artista, benetako artista herriko jendea omen, bere eskuen izerdiaz bizitza aurrera ateratzeko beharrezkoa duen guztia egiten duen jendea. «Nik artelan horiek erre-presentatu baino ez ditut egiten», esaten digu Juanek.

Askotan, egunero-egunero ikusten ditugu, eta ez dugu inguratzen gaituzten formetan erreparatzen. Horregatik gogorarazi nahi digu Arribeko artistak gauzarik sinpleenak ere arte bihur daitezkeela.

Oso lan gutxi saldu ditu orain arte Gorritik, baina ez zaio gehiegi axola, ez baita hori bere helburua, jendeak bere lanen bitxitasunaz gozatzeari baina.

Lagun dituen beste artistak izan ditu maisu, baina baita Mixto eta Anjel bezalako bizilagunak ere. Eta aitona. Hari kentzen baitzizkion txikitan lanabesak.

Uste duenez, munduan diren bailara politenetako batean bizitzeak ere eragin handia izan omen du bere lanean; izan ere, «aterik gabeko arte galeria» bat baita

♦ Araitz.

ten zuen moduan saltzea zezaten. Baina kutxa horietan Juanen eskua ere nabari da: kolorez beteriko atzealde horren aurrean, egurrezko estrukturak eta bonbilak gehitu dizkio, benetan konbinaketa bitxi bat lortuz. Lan berriak bai, baina betiko lanak ere eraman ditu Lekunberriko Gorritik: erreparatzaile moduan aritzen zen garaiko zizeilu eta garikutxa bezalako altzairu ikusgarriak ere badira bertan.

Ikasketa prozesu luze bat izan da Gorritiren bizitza. Hasiara batean, altzairu zaharrak konpontzen zituen sollik. Oteiza ezagutu eta eskulturarekin jolasten hasi zen. Eskultura horietan kolorea ugaritu egin da Ortiz de Elgea, Zumeta eta beste hainbat margolari ezagutu ahala. Eta oraindik azken ikasgaia ikasteke du Gorritik, «egurrezko gorbata jarri arte» jarraitzeko asmoa baitu. Fisikoki ez oso ondo, baina buruz, inoiz baino fuerteago omen dabil artista herrikoa. Aurrera begirako proiektuak: ganbarei eskainitako erakusketa bat eta etxe ondoan duen Mailope galerian jarraitu, beti ere bere barruan duen ume bihurri horren bihurrikeriak artelan bihurtuz. X



\* ◆ **Kristina Urrutia** ◆ *Jaiak 97-ko kazetaria*

# «Sardinera eta parrandazalea naiz»

**A**urtengo udan festarik festa ibiltzea tokatu zaio Kristinari. Baina lanean, lana eta parranda ez dira gauza bera. Dena den, gustura dabil bera, Euskal Herriko festa gehienak ezagutzeko aukera izan baitu.

Urko Aristi / Iruñea

Egun hauetan lanik ez duela-eta primeran aprobetxatu ditu Leitzako festak. Lanean baino gusturago ibiltzen da Kristina parrandan. Telebistan agertzeak dakarren ospea ez zaio jasangaitza egiten. Asko jota, «aupa Jaiak!» oihua entzun behar izaten du behin eta berriz. Gaupasaren eta siestatxoaren artean leitzar jator honekin egoteko aukera izan genuen.

■ **Ezinbesteko baldintza al da parrandazalea izatea, Jaiak 97 saioan lan egiteko?**

Ba ez dakit norbait badagoen parranda gustukoa ez duenik, baina gure kasuan, nik uste baietz, gustukoak izan behar dituzula juergak eta horrelako saltsak. Bestela, jai daukagu. Niri behintzat izugarri gustatzen zaizkit. Oso parrandazalea naiz, oso. Ni leitzar naiz, baina baita erdi-goizuetarra ere, eta bi herrietako festak eta ingurukoak beti harrapatzen ditut.

■ **Ez al da astuna egiten besteak parrandan ari diren bitartean zu lanean aritzea?**

Nahiko gogorra da, egia esan. Besteak juergan daude eta zu lanean, eta batzuetan jendea pixka bat pasatu egiten da, nahi gabe, baina... Ni orain Leitzako festetan nabil parrandan, eta bi aldeak nolakoak diren ikusten dut.

■ **Uda ere amaitzean da aurki... Zer-nolako balantzea egiten duzue Jaiak 97-koek?**

Balantze gutzit positiboa. Oso gustura gaude. Lan arloan, oso esperientzia ona izan da; baina gorputzarentzat, berriz, oso nekagarria. Ez dirudi, baina asko nekatzan da lan honetan: herri herri ibili behar duzu, eta gero Durangora bueltatu gaez, ordu txikietan bideok editatzera. La-

nordu asko dago hogeit minutuko saio txoaren atzetik.

Bestalde, niretzat izugarriko aukera izan da, zeren karrera amaitu berria eta jadanik horrelako martxan hasia... Unibertsitatean bai, teoria irakasten dizute, baina praktikaz ezer gutxi. Bestalde, nekatutak ere bagaude, baina berreskuratuko ditugu inarrak.

■ **Saioa nahiko freskoa suertatzen da. Freskotasan hori lotzea, erraza izaten al da?**

Jendea animatzen hasi eta bere saltsan daudenean, zu bertan murgiltzea da kontua. Hor murgilduz gero, hori erakustea nahiko erraza egiten da. Baina beste batzuetan, ez dago ezer askorik, eta ezin. Donostiakoa, adibidez, nahiko motela suertatzen da.

■ **Alde handia nabari duzue herri txiki eta hiri handien artean?**

Herri txikietan oso harrera ona eskaintzen digute. Beharbada, herrietako jendea irekiagoa da, eta hirietakoa hotzagoa. Ez dakit. Hori bai, horrekin ez dut esan nahi hiri guztietan gauza bera gertatzen denik. Gasteizen, adibidez, primeran hartu gintuzten, eta oso gustura ibili ginen. Baina, bai, aldea nabaritzen da.

■ **Orain arte ezagutu dituzun herrietatik, non ibili zara hobekien?**

Herri askotan izan naiz gustura: Gasteizen..., eta ia-ia gehienetan. Eta okerren... Harokoekin daukat oroitzapen txarrenetakoa. Ardoaren guda izeneko festara joan ginen. Goizeko zortzietan grabatzen hasi, eta bederatzia alderako blai-blai eginda nengoen, ardoz beteta goitik behera. Hura nazkagarria izan zen. Gainera, hotz egiten zuen. Momentu hartan sekulan ez nintzela bueltatuko uste nuen, baina orain urrutitik begiratuta, beharbada ez zen horrenbesteko...



Lan asko egin arren, Kristinaren aurpegia beti alai.

LUIS AZANZA

Lizarran ere, blai-blai eginda bukatu nuen, baina ez ardoz, urez baizik.

■ **Telebistan zeure burua ikusten duzunean, gustura geratzen al zara emaitzarekin?**

Ba, alde batetik nahiko kritikona naiz, eta pentsatzen jartzen naiz: 'Ai ama! Nola esan nezakeen hori? Hori oso fuertea da...'. Jakina, egiteko momentuan gauzak ez dituzu bi aldiz pentsatzen, bestela gauzen erdiak ez zenituzke egingo. Baina ondoren pentsatzen jarri, eta... Dena den, akats

horietan erreparatzea komeni da. Hasieran, azkarregi hitz egiten nuen, eta orain saiatzen naiz mantsuago egiten, baina nola erdi-sardinera naizen, edo sardinera totala... oihuka beti.

■ **Zer da zure lanetik gutxien gustatzen zaizuna?**

Ba, nik jendea behar dut beti ondoan, ez zait bakardadea baterere gustatzen, eta, noski, gaueko ordu txikietan, Durangon editatzen gaudenean, ez dago inor lanean, dena ilunpean dago, eta tristura sartzen zait.

s o s l a i a

Hogeita hiru urteko leitzar honek aurtengo amaitu ditu kazetaritzako ikasketak. Egia esan, oraindik ikasgai bat falta zaio: zinema. Irailean gaindituko omen du. Orain arte, ikasketak lanarekin bateratu ditu, urtebete pasatu baitu ETBko 'Bertatik Bertara' saioan bekarario moduan. Gustura aritu omen da gainera.

Asteburuetan, panderoa jotzen irakasten die herriko umeek. Berak Maixarekin ikasi zuen, eta noizbehinka panderoa hartu eta ederki astintzea gustatzen zaio. Topa Jai zerrendarako, Alaitz eta Maiderren 'Txanpon baten truke' abestia aukeratu luke. 'El toro y la luna', berriz, ez du baterere gustukoa.

Lehen telebista asko ikusten zuen Kristinak, batez ere azterketa garaletan. Baina orain ez du telebista ikusteko denbora askorik. Eta, gainera, eskaintza ere ez zaio oso erakargarria egiten. Telebistetan inajitazio falta eta zabarkeria gehiegi dagoela uste du sardinera honek.

«Herrietako jendea irekiagoa da; hirietakoa, berriz, hotzagoa»

## BEKARIO!

Zaldi Eroa

